Olabide Ikastola. Telf: 945150640. Posta saila 571. 01080 Vitoria-Gasteiz. e-mail: posta@olabide.com

# GURE GAUZAK 21

Ikastolako aldizkaria 2003ko uztaila



OLABIDE IKASTOLA

## UDA BADATOR!

# GURE IKASTOLAREN 40. URTEURRENA

Batzuek bazekiten hurrengo ikasturtean OLABIDE Ikastolak 40 urte bete behar dituela, baina beste askok ustekabea hartu du horren berri izan duenean. Gure ikastola aitzindari izan zen Gasteizen, eta Euskal Herriko lehenengoetariko bat ere bai. Hala bada, urteurrenak merezi duen ospakizuna egiteko prest egon behar dugu.

Ikastolaren Artezkaritza Kontseiluak eta Zuzendaritzak batzorde bat eratu dute, programa antola dezan, eta ospakizunean Olabide Ikastola osatzen dugun guztiok geure tokia izan dezagun.

Orain arte zenbait egiteko bete dituzte: ikasle-ohiei eta Artezkaritza Kontseilukide-ohiei gutuna bidali diete, Olabide Ikastolan ikasle, kooperatibista, irakasle edo langile aritu direnen datu-basea sortzeko. Baina muga handiak daude, izan ere datuak falta dira, eta ez dago denekin harremanetan jartzea. Orain artxiboak eguneratzen ari gara, eta eskatzen dugu gai horri buruzko gutunik jaso ez dutenek deitu edo idatz dezatela Ikastolako idazkaritzara (tlf: 945-150640, fax: 945-130250, e-mail: posta@olabide.com).

Olabide Ikastolaren Artezkaritza Kontseilukide-ohiei eginiko deialdian, honako argazki interesgarri hau egin genuen; hor azaltzen da, besteak beste, Izaskun Arrue, Ikastolako lehenengo andereño eta zuzendaria.

*Si bien para algunos era algo esperado, para otros muchos es una verdadera sorpresa que nuestra ikastola, OLABIDE, vaya a cumplir ¡40 años! el próximo curso. Siendo la ikastola pionera en Gasteiz y una de las primeras en todo Euskal Herria, nos tenemos que preparar para celebrar tal efeméride a la altura de las circunstancias.*

*El Consejo Rector y la Dirección de la Ikastola han conformado una Comisión que se va a responsabilizar de preparar un programa, que recoja las sensibilidades de todos los que componemos Olabide Ikastola en torno a como celebrar este evento.*

*Para empezar, ya se han enviado cartas a antiguos alumnos, a ex-miembros del Consejo Rector, etc, para crear la base de datos de todos los alumnos/as, cooperativistas y profesores y demás trabajadores que han pasado por Olabide Ikastola; todo ello de forma limitada, es cierto, por la imposibilidad de poder contactar con todos y todas por la falta de datos. Estamos en la fase de actualización de archivos y rogamos que a los que todavía no han recibido ninguna carta al respecto, se pongan en contacto con la Secretaría de la Ikastola(tlf: 945-150640, fax: 945-130250, e-mail: posta@olabide.com).*

*En la convocatoria hecha a los ex-miembros del Consejo Rector, se hizo esta interesante foto en la que entre otros y otras está la primera andereño y directora de la ikastola, Izaskun Arrue.*



# OLABIDE EGUNA




Ekaina ailegatu zaigu, baita eguraldi ona ere, eta honekin batera Olabide Eguna. Aurten larunbatean ospatu izan dugu, ekainaren 7an, hain zuzen ere. Eguzkia eta beroa izan ziren gure festakideak, baina, hala eta guztiz ere, giro ederra eta atseginenean bizi izan genuen egun berezi hau.

Goizeko lehenengo orduetatik ekintza bereziak egiteko aukera izan genuen, denon gustukoak. Ausartenak 8:30 etan txirringaz etorri ziren. Kirol txapelketa ezberdinak hamarretan hasi ziren: frontenisa ( Silvinok eta Ainoha Elordik osatutako bikotea irabazlea izan zen), igeriketa, futbola, saskibaloia, pilota,...DBHko ikasleen artean 4.mailakoak garaile irten ziren, urdaiazpiko bat izan zen sari preziatua.

Ohiturak markatzen duen moduan, irakasle -guraso futbol partidua ospatu zen. Gehienak sasoi onean, ja!. Ondo pasatu genuen eta guztien trebeziak ikusteko aukera izan genuen.

Aerobika gustukua dutenek aukera ezinhobea izan zuten Ainhoa Elordik zuzendutako aerobithoian. Zelako agujetak!

Honetaz aparte, beste ekintza interesgarri batzuk egon ziren: antzerkia, sokatira, dantza, patinaia, esgrima, abesbatza, judo, txistu, krossa, soinketa, erakusketa, ...

Egarria eta gosea asetzeaz, gure DBH 3.mailoko ikasleak arduratu ziren ikas-bidaiarako dirua ateratzeko asmoz. Eguzkiaren indarrez babesteko atsedenaldia eta pintxo bat!

Ordu bata eta erdietan Batxilergo Bigarren mailako ikasleei agurra egin zitzaien, Ikastolan bizitza erdia baino askoz gehiago eman ondoren, merezi baitzuten.

Bazkaria eta gero ekintza berriak egin ziren: mus txapelketa, txontxongiloak, Selgartz musika taldeak emandako kontzertua,...

Eguna amaitu zen, denok primeran pasatu genuen.Eskerrak astelehenean jaia izan genuela atseden hartzeko!!





GG

# KORRIKA, BETI KORRIKA






Korrika ibiltzeak amorratu egiten gaitu gehienetan, betebeharrak estresaturik baikabiltza. Haatik, badira bestelako korrikaldiak gustura egiten ditugunak.

Izan ere, aurten bigarrenez Olabide Kultur astean Ahotsuren korrika egin genuen. Euskara gelatik kalera ateratzeko asmoz, Lasartetik abiatuta, Olabide ikastola inguratu ondoren, gure jolastokira etorri ginen. Ekintza hunkigarria da gure txikientzat. Irakasleok mimoz prestaturiko jaia urtero antolatzen dena.

Hala ere, Korrikaren 13. edizioa zela eta, aurten bigarren aldia ere izan zuen eta ez txarragoa horregatik. Korrikarien adinak gorantz nabarmen egin arren, arnas estu eta eztulen artean hara joan ginen Olabidetik CUArantz tropelean guraso, ikasle, irakasle eta euskaltzale mordoa.

Lehenik, gure lehendakariak, José Luis Cimianok, hartu zuen lekukoa eta denok, euskararen aldeko oihuak eginez, jarraitu gintzaizkion. Ondoren gure irakasleen txanda heldu zen eta Kontxi Ibarraran eta Maritxu Goikoetxea aitzindari, ibilbidea jarraitu genuen modu berean.

Bejondegula , eta datorren urtera arte!

**ATERA EUSKARA GELATIK KALERA**

# OLABIDE KULTUR ELKARTEA

Azkenengo hiruhilabete motz honetan, lan ta lan ibili gara Kultur Elkartean. Hainbat ekintzen artean, maiatzaren 24ean, Agurainen, Txistulari Txikiaren Eguna eta ekainaren 1ean Langraitzen Arabako Dantzari Eguna ospatu genuen.

Guzti honetaz gain eta ekainaren 7an ikusi zenuten bezala, gure haur guztiek ekitaldi txikitxoak eskeini zizkizueten Ikastolako Egunean.

Bestaldetik, eta urtero bezala, Euskal Herriko Kantu Txapelketa ospatu da. Aurten txiki eta gazteei txanda iritsi zaie eta maiatzaren 24ean gure Ikastolako hainbat kantari Laudiora hurbildu ziren bakarlari, bikote eta talde bezala Arabako finalaurrean parte hartzeko.

Gure Ikastolako partaide guztiek sariren bat eraman zuten eta honekin batera Euskal Herriko finalera joateko aukera. Gure abesbatzako zuzendaria den Estitxu Txurrukak ere, egiten duen lanagatik sari bat jaso zuen.

Beatriz eta Amaia eta Kimuak Taldearekin, ekainaren 14ean, Getxora joan ginen eta nahiz eta bertan saririk ez jaso Araban maila oso ona dagoela erakutsi genuen.

Beraz, lerro hauetatik nahiz eta saririk ez jaso, ZORIONAK parte hartu zuten guztiei oso ondo egin zutelako.

*En este último y corto trimestre, hemos tenido un montón de actuaciones en la Asociación Cultural. Entre otras, el 24 de mayo, se celebró el Día del Txistulari Txiki en Salvatierra y el 1 de junio, celebramos en Nanclares de Oca el Día del Dantzari Alavés.*

*Aparte de todo esto y como ya pudisteis comprobar el pasado 7 de junio, todos/as nuestros/as chavales/as ofrecieron pequeñas actuaciones el Día de la Ikastola.*

*Por otro lado y como todos los años se ha celebrado el Concurso de la Canción Vasca. Este año les ha tocado el turno a los peques y jóvenes y el pasado 24 de mayo varios cantores/as de nuestra Ikastola se acercaron a Llodio para participar como solista, dúo o grupo en la semifinal de Alava.*

*Allí, todos los que participaron se llevaron algún premio y con ello la oportunidad de participar en la Final de Euskal Herria. Incluso la directora de nuestro coro, Estitxu Txurruka recibió un pequeño recuerdo por el trabajo que realiza.*

*Así el 14 de junio fuimos a Getxo y allí, aunque no conseguimos ningún premio, demostramos que en Alava tenemos un buen nivel.*

*Por ello y mediante estas líneas, felicitamos a todos/as los participantes que aunque no ganaron ningún premio, lo hicieron estupendamente.*

# EUSKARA BATZORDEA

Azken hilabete hauetan ikasleen euskararen erabilera sustatzeko, motibapen kanpainak burutzen jarraitu dugu, Korrika 13ren aitzakian Ahotsuren egunaren ospakizuna izanik ekintzarik nagusiena (apirilaren 4an eta 10ean). Hau oso motibagarria egin zaie, ikasleek oso gustora hartzen baitute gelatik ateratzea eta ez-ohizko ekintzak egitea. Bide batez, euskara gehiago erabiltzen saiatu dira, batik-bat nagusiek txikiagokoei zuzendutako ekintzetan.

Bestalde, Lehen Hezkuntzan, partxisa 1.go zikloan eta besteetan Euskal Herriko jokuaren bidez ikasleen euskararen erabileraren motibazioa eta neurketa egin izan da. DBH eta Batxilergoko ikasleak inguruko euskarazko ekintzetan parte hartzeko motibatzen saiatu gara (Gauekoak, Ibiladia, Araba Euskaraz...) eta Batxilergoko ikasle batzuek Esna Hadi! aldizkaria sortu dute..



Gurasoen euskara eskolei dagokienez, aurtengo kurtsoa jadanik amaituta dagoela eta hurrengoa martxan dagoela esan behar dugu. Datorren ikasturtean aurtengo urratsen jarraipena, hots, 2. eta 4. urratsak eta berriro ere 1. urratsa eskeiniko dira. Eskola hauen informazioa udalak abuztuan zabaltzen duen liburuskan, non gizartetxeetako ekintza guztien informazioa agertzen den, azalduko da. Antolaketa honako hau izango da: arratsaldean hiru egun astean -astelehena, asteartea eta ostegunetan- 15etatik 16,30 arte. Nahiz eta eskolak Olabiden izango diren, matrikula irailean egin behar da Hegoalde gizartetxean. Hemendik animatu nahi zaituztet aukera daukazuen guztiok eskola hauetan parte hartzera, zuen seme-alabaren euskararen jabekuntza prozesua hurbiletik jarraitu ahal izateko. Bide batez, zuen seme-alabari oso motibagarria suertatuko zaio zuentzat euskarak duen balorea ikustea, eta berak ikasiko du ere baloratzen eta maitatzen ezagutzen ari den hizkuntza berri hau.

Azkenik, web orri interesgarri baten berri eman behar dizuet: www.arrasate-mondragon.org , idatzi-ereduen liburu praktikoa. Bertan, honako idatzi hauen aholku eta adibide aurki ditzakegu: gutunak, gonbitak, zorion agurrak,doluminak ematea, eskolako idatziak -sail honetan irakasleari haurra eskolara joan ez izana edo eskaera bat nola egin azaltzen da-, etxe atariko auzokideen komunitateen idatziak,etab

*Estos últimos meses hemos seguido organizando campañas de motivación para aumentar el uso del euskera de los alumnos. El principal acto fue la organización del día de Ahotsu (los días 4 y 10 de abril) con la excusa de la Korrika 13. Las diferentes actividades les resultaron muy motivadoras, ya que los alumnos acogen con gusto el salir de clase para realizar actividades diferentes. De la misma forma, se esfuerzan por utilizar más el euskera, sobre todo en las actividades que los mayores dirigen a los más pequeños.*

*Por otro lado, en E.P. se han utilizado los juegos del parchís en el 1º ciclo y de Euskal Herria en 2º y 3º ciclo para medir y motivarles en el uso del euskera. Hemos seguido animando a los alumnos de ESO y Bachiller para que tomen parte en las actividades en euskera que existen fuera de la ikastola (Gauekoak,Ibilaldia, Araba Euskaraz...) y algunos alumnos de Bachiller han creado una revista en euskera:Esna Hadi!*



*Por lo que respecta a las clases de euskera de los padres, hay que decir que ya han terminado este curso¡Zorionak a todos los que habéis realizado este esfuerzo!El próximo curso se ofrecerán los niveles de 1º,2º y 4º. La información sobre estas clases aparecerá en el cuaderno que publica el Ayuntamiento y que buzonea en el mes de agosto y donde aparecen las actividades deportivas y culturales de la ciudad en el próximo curso.Las clases de euskera serán los lunes,martes y jueves de 15:00 a 16:30. Aunque se impartirán en Olabide, la matrícula hay que hacerla en septiembre en el centro cívico Hegoalde. Desde estas líneas os quiero animar a venir a estas clases si podéis, para así poder seguir más de cerca el proceso de adquisición del euskera de vuestro hijo. Así, a vuestro hijo le resultará muy motivador ver el valor que sus aitas le dan al euskera y de esa forma aprenderá él también a valorar y querer esta nueva lengua que está aprendiendo.*

*Por último, os queremos dar información sobre una interesante página web: www.arrasate-mondragón.org donde aparecen diferentes modelos de textos en euskera: cartas, invitaciones, felicitaciones, pésames, textos para las escuela - cómo justificar al profesor que tu hijo no va a asistir ese día a clase-, textos de la comunidad de vecinos de casa, etc.*

**Arantxa González**














arrotzel
TSIOA
korrika


korrika
1499









korrika



GG



# HAUR ETA LEHEN HEZKUNTZA

## Ahotsuren eguna

Aurten ere izan dugu, Ahotsu gure artean, bere omenez egindako Ikastolako jaialdian, hainbat ekintza burutu ziren. Haur txikienek OLABIDEko Korrikan parte hartu zuten azken metroak burutuz, itxafleroaren hotsak, hasiera ematen zion jaialdiari eta urduritasuna nabarmena zen gure txikien aurpegietan, arratsaldean Gasteizko kaleetan Korrika Txikiaren islada agian. Haur Hezkuntzako lau urteko gure ikaslea den Nagore Gurtubairi egokitu zitzaion lekukoa azken kilometroan eramatea, bera OLABIDEko ikasle guztien gidari izanik Gasteizko kaleetan zehar. Honetaz gain pailazoak izan genituen gure artean, Korri,Xalto eta Brinko, barre algarak sortarazi zituzten, eta gutariko zenbait irakasle protagonista bihurtu zituzten berain ezenatokian umeen harridura eta poza gauzatuz

*Durante la celebración de el día del euskara, recibimos la visita de Ahotsu, era un día en el que desde el lanzamiento del cohete anunciador del comienzo de la Korrika en OLABIDE, las muestras de nerviosismo entre los más pequeños era palpable, tal vez preludio de la Korrika txikia que en las calles de Gastéis iba a tener lugar por la tarde, y en la que una alumna de cuatro años, Nagore Gurtubai iba a ser la encargada de portar el testigo durante el último kilómetro. Además de estas actividades, tuvimos la presencia de los payasos Korrí, Xalto y Brinko que propiciaron las risas de pequeños y mayores (andereños, maisus y alumnos/as), haciéndonos a los maisus y andereños partícipes del espectáculo en el escenario, provocando la admiración, sorpresa y risa en los más pequeños.*

## Ikasturteari amaiera emateko txangoak

Ikasturtea amaitzera doa eta gure txikiek ere txangoak burutzen hasi dira. Horrela, HH5 mailako umeek (lau urtekoek), maiatzaren 29an Urkiolako Parke Naturalera egin zuten irteera, eguraldia zoragarria izan bazen ere zoragarriagoa umeek eta tutoreek bizitako eguna. Mendian ibilaldiak, jolasak, hamarretako eta bazkariak poztasun osoz burutu ziren. Ekainaren 5ean HH6 mailakoen (bost urtekoen) txanda izan zen, hauek Valderejoko Parke Naturalera burutu zuten irteera eta bertako landaretza eta animalien ingurugiroa ezagutzeaz gain parada izan zuten ibilaldi eta jolasetarako. Azkenik bai hiru eta bi urteko umeek egun erdiko irteerak burutuko dituzte, hiru urteko umeek ekainaren 13an Garaiora joango dira, txikienak, bi urtekoak Olarizura abiatuko dira ekainaren 17an, motxiletan hamarretakoa prestaturik eta gorputza ilusioz beterik

*Los más pequeños también se van de excursión, de esta manera, los alumnos/as de 5º de Educación Infantil se desplazaros el día 29 de mayo hasta el Parque Natural de Urkiola, donde acompañó el buen tiempo y pudimos disfrutar de la naturaleza en este entorno resultando un día estupendo para todos. Así mismo los alumnos/as de 6º curso el día 5 de junio, acudieron al Parque Natural de Valderejo, donde además de conocer la fauna y flora del lugar tuvieron oportunidad de disfrutar del juego en un entorno incomparable.*

## ERREALA OLABIDEN

Euskararen erabilera bultzatzeko asmoz, aurten ere, Euskararen Kultur astea ospatu genuen apirilaren lehenengo astean . 6. mailako ikasleentzat antolatutako ekintzen artean Errealeko jokalarien bisita izan genuen. Beraiekin izandako solasaldia oso bizia eta atsegina izan zen. Jakina! Aurten egiten ari diren denboraldi bikainarekin...

Azkenean haiekin ibili ginen sinadurak eta argazkiak egiten

*Con motivo de la promocionar la utilización del eusakar, este año de nuevo, celebramos la Semana Cultural del euskara la primera semana de abril.. Los alumnos y alimnas de 6º de Primaria, entre todas las actividades preparadas, pudieron disfrutar de la visita de los jugadores de la Real. Los momentos que pasamos con ellos fueron muy agradables y amenos, ¡por supuesto! Sobre todo con la excelente temporada que están haciendo.*

*Tuvimos la oportunidad de fotografiarnos con ellos y de recoger autografos.*





# DBH ETA BATXILER

## DBH 2 antzerkira

Lengua eta Lieratura mintegiaren eskutik, gure DBH 2. mailako ikasleek irteera berezi bat izan zuten. Udelatxeak antolatzen duen programaren barruan, "Ligazón" eta "Pervertimiento" antzezlanak ikusteko aukera bikaina izan zuten Luis Elejalde ikastetxean.

*Los alumnos de 2ª de ESO realizaron una salida especial organizada por el departamaneto de Lengua y Literatura. Los alumnos tuvieron la oportunidad de presenciar las obras "ligazón" y "Pervertimiento" en Luis Elejalde dentro del programa preparado por el Ayunatamiento.*

## BIDARRAI

DBH 2B, 2D eta 2E ko ikasleak Bidarraira joan ziren aurreko ebaluaketan, euskararen erabilera bultzetzeko kanpaina dela eta. Bertan 4 egunez euskaldun giro batean disfrutatzeko aukera izan zuten.

*Los alumnos de 2B, 2D y 2E fueron a Bidarrai con motivo de la campaña en favor de la utilización del euskara. Durante cuatro días tuvieron la oportunidad de disfrutar en un entorno euskaldun.*

## Gasteiztxo

DBH 3. mailako bi taldek Gasteizko Udalak antolatzen duen tailer batean parte hartu zuten. Irrati albistegi bat egiteko aukera izan zuten. Informazio ezberdinak bildu ondoren grabaketei ekin behar izan zieten.

*Dos grupos de 3º de ESO tomaron parte en un taller organizado por el Ayuntamiento. tuvieron la oportunidad de confeccionar un informativo radiofónico. Después de obtener la inform,ación necesaria procedieron a la grabación del programa*

## Komiki txapelketa

DBH 4. mailako ikasle batzuk Caja Vital Kutxak antolatutako XX Eskolarteko Komiki lehiaketaren irabazleak suertatu ziren taldekoen atalean. Saria irteera kulturala izan da, Chillida Lekura, hain zuen ere.

*Algunos alumnos de 4ºde ESO resultaron ganadores en la modalidad de grupo en el XX Certamen escolar de Cómic. El premio recibido fue un salida cultural a Chillida Leku.*

## Ahotsu eguna

Ahotsu egunean, eta Korrikarekin bat eginik, gure ikasleek euskalzale famatuen bisita izan zuten. Kike Amonarriz, Aritz Itxisoa, Ibon Salterain, Iker Foranda, Mikel Urdangarin eta Kirmen Uribe, bestak beste. Hauekin batera Selgartz taldearen kontzertua ikusteko aukera izan zuten.

*En el día de Ahotsu y coincidiendo con la Korrika, nuestros alumnos recibieron la bisita de diferentes euskaltzales. Kike Amonarriz, Aritz Itxisoa, Ibon Salterain, Iker Foronda, mikel Urdangarin y Kirmen Uribe, entre otros. También tuvieron la oportunidad de disfrutar del concierto ofrecido por el grupo Selgartz*

## BAT. 2. maila

Azken hilabeteetan batxilergo 2.mailako ikasleek, gaztelania irakasgaian, El País egunkariak antolatu duen txapelketa batean parte hartu izan dute egunkari digitalak sortuz. Txapelketaren emaitzak ekainaren bukaeran agertuko badira ere, egindako egunkariak ikusgai daude helbide honetan: www.estudiantes.elpais.es Todos los periódicos/ periódicos publicados atalean. Programa berean, Cuestión de segundos izeneko atalean kulturari buruzko galderak erantzuten Josu Gabilondok ordenagailu portatila irabazi du. Zorionak!

*En estos últimos meses los alumnos de Bachiller han tomado parte en un concurso de periódicos digitales organizado por El País. Aunque los ganadores no se conocerán hasta finales de junio, podéis ver los periódicos que han hecho en la dirección www.estudiantes.elpais.es Todos los periódicos/ periódicos publicados. En el mismo programa, en la sección Cuestión de segundos el alumno Josu Gabilondo ha ganado un ordenador portátil contestando preguntas de cultura general. Zorionak!*

# OLABIDE KIROL ELKARTEA

Ale honetan komentatzeko puntu interesgarri batzuk ditugu:

Lerro hauetan Olabide Kirol Elkarteak antolatutako ekintza ezberdinei buruz jardungo gara. Esan beharra dago Esku pilotako barne txapelketa bat antolatu zela eta arrakasta handia izan zuela. 70 partehartzaile aritu ziren bertan 4 asteburutan zehar, finalak Olabide Egunean ospatu zirelarik. Partehartzaile hauek LH2 eta DBH 2. mailen arteko ikasleak ziren. Honen barnean familia txapelketa ere jokatu zen, non gurasoek beraien semeekin batera jolastu ahal izan zuten. Txapelketa honek asteburuetan bizi handia eman zion ikastolari, ume eta ez hain umeen alaitasun eta giro ona ekarriz.

Txapelketa honi, maiatzaren 31a eta ekainaren 1a bitartean ospatu genuen I Olabide Saskibaloi Txapelketa gehi diezaiokegu. Txapelketa honetan Euskal Herriko hiru lurraldetako (Gipuzkoa, Nafarroa eta Araba) taldeak izan genituen, bai Kadete mailan, baita Junior mailan ere. Txapelketa oso polita eta ikusgarria izan zen etorri ginenontzat eta etorkizunean antolatzen jarraitzeko gogoekin gelditu ginen.

Bestalde, duela gutxi izandako Olabide Egunean ekintza ezberdinei amaiera polit bat emateko txapelketa, erakustaldi eta joko ezberdinak antolatu genituen. Orokorrean pozik gaude egun honetan izandako ekintza ezberdinekin, batzuk guk programatu bezala irten ez arren. Datozen urteetarako esperientzia oso lagungarria izan dela aipatu beharra dugu.

Amaitzeko aipatzekoa da urte honetan zehar gure taldeek beraien txapelketa ezberdinetan izandako jarrera. Arabako ikastetxeetatik ikastolako irudia zabaldu dute portaera egoki eta alai bat emanez eta kiroltasunez. Beraz, aipa dezakegu inongo zalantzarik gabe, oso harro gaudela, gure ikastolako umeek, entrenatzaileek eta gurasoek hortik zehar emandako itxurarekin, ZORIONAK ETA HOLAN JARRAITU!!!

*En esta edición tenemos interesantes puntos para comentar:*

*En estas líneas informaremos acerca de las diferentes actividades que ha organizado Olabide Kirol Elkartea para la finalización del curso escolar. Tenemos que decir que se organizó un campeonato de pelota mano el cual fue todo un éxito. En dicho campeonato participaron 70 pelotaris durante 4 fines de semana, celebrándose las finales el Día de Olabide. Los participantes pertenecían a los cursos de entre 2.EP y 2. ESO. Paralelamente se disputó también un campeonato familiar, donde los padres podían jugar de pareja conjuntamente con sus hijos/as. Hay que decir, que este campeonato de pelota le dio un gran ambiente a la Ikastola, ambiente que se debe tanto a los niños como a los no tan niños que acudieron al campeonato.*

*Al campeonato comentado anteriormente hay que sumarle el del I Torneo Olabide de Baloncesto celebrado el 31 de mayo y 1 de junio. A este otro campeonato, de categorías cadete y junior, acudieron equipos de tres territorios de Euskal Herria (Gipuzkoa, Nafarroa y Araba). El torneo fue muy bonito y vistoso para la gente que acudió y nos dejó con ganas de seguir organizándolo en años venideros.*

*Por otro parte, en el reciente Día de Olabide se organizaron campeonatos, exhibiciones y juegos para dar un final bonito a las diferentes actividades de Olabide Kirol Elkartea. Estamos contentos con el transcurso de las diferentes actividades, aunque en algunas tuviéramos ciertas complicaciones. Creemos que la experiencia vivida este año nos ayudará mucho para futuros eventos.*

*Para finalizar es destacable la actitud exhibida por nuestros equipos. Han difundido la imagen de la Ikastola por toda Araba con mucha dignidad, con una actitud muy correcta, alegre y llena de deportividad. Por lo tanto, podemos afirmar sin ningún tipo de dudas que estamos muy contentos con la imagen ofrecida por nuestros niños/as, entrenadores y padres/madres en los diferentes compromisos que han participado, ZORIONAK Y CONTINUAD ASÍ!!!*

**Olabide Kirol Elkarteko arduradunak**

# ERAIKI PROIEKTUA

Arazoen ebazpena eta sormena lantzeko diziplinen arteko talde lanaz burututako proiektu bat da. HH eta LHn sormena lantzeko programazioaren jarraipena da. Ikasmaila honetan jarri izan dugun erronka, hauxe izan da: kreatibitate teknikak erabiliz, elikagai eta kontsumo produktu batzuen ontziak hobetzea, eta amaieran publizitate iragarki bat egitea.
Lan hau burutze-prozesuan ikasleek emandako urratsak hauek izan dira:
-Arazoen ebazpenerako prozedura barneratu. Kreatibitate teknikak txertatuz.
-Merkatu ikerketa xume bat egin dute. Honetarako galdeketa baten bidez kontsumo produktu horien ontzien egokitasuna eta erabilpen maila neurtu dute, ondoren, datuak aztertuz.
-Lana planifikatu GANTT errepresentazio tresna erabiliz.
-Produktua diseinatu eta grafikoki azaldu.
-Iragarkia prestatu eta grabatu.
-Iragarkien balorazioa gauzatu.
Prozesu osoa amaitu ondoren, eta luze eztabaidatu ondoren talderik hoberenak hauek izan dira:
1.-Aitor Urkiola; Kepa Lasaga; Nerea Fuentes; Miren Saenz de Valluerca; Ekaitz Samaniego. 2.-Leire Tuesta; Maialen Igartua; Iñigo Bengoa; Zigor Arakama; Arrate Sainz de la Maza. 3.-Arantzazu Bilbao; Iñaki Arruabarrena; Jon Saez de Ocariz; Patricia Perez.
Dagoeneko bigarren urtez gauzatu dugu proiektu hau eta iazko esperientziarekin konparatuz gure balorazioa oso positiboa da, oraindik gauza asko hobetu behar izan arren. Gauza askoren artean, ondorengo hauek azpimarratuko genituzke:
-Ikasleen parte-hartzea eta azaldutako motibazioa.
-Irakatsitako teknikak.
-Ikusitako lan eta ekoizpenak
-Beste irakasleen laguntza eta eskainitako erraztasunak.
Gure ikasleek, proiektuaren amaieran egindako galdeketan, izandako esperientziari ia 8a ( 7,90) eman diote, beraz bere balorazioa ere oso positiboa izan da. Honek hurrengo urtean jarraitzeko eta beste mailetara pasatzeko animatzen gaitu.
Bukatzeko, parte hartu duten ikasle guztiei eta DBH go mailako irakasleei eskerrak eman nahi dizkiegu.

**ERAIKI PROIEKTUAREN ARDURADUN TALDEA.**








## DIBERTZIFIKAZIO TALDEA

Aurtengo dibertzifikazioko taldekoak gara eta testu honen bidez ikasturte honetako gure esperientzia azaldu nahi dugu.

Aurreko urtetan akademikoki txarto ibili ginenez gure maila hobetzeko nahian, talde honetan sartu ginen.

Zer da dibertzifikazio gela?
o Talde murriztua
o Hiru irakasle
o Atentzio handiagoa ikasle bakoitzari
o Metodologia ezberdina, oso egokia eta ikasteko metodo berriak
o Guztion arteko giro ona
o Azalpen onak eta sakonak

Beraz, gauza hauen bila daudenei dibertzifikazio gela gomendatzen diegu.

Aldi berean, eskerrak Ainhoa Gónzalez de Galdeano, Mª Carmen Bejarano eta Amaia Priorri

**DIBERTZIFIKAZIO TALDEKO IKASLEAK**

# GURE TXOKOA

## DBH 4. IKAS-BIDAIA

Maiatzaren 24tik apirilaren 2ra, DBH 4. Mailako ikasleok ikas bidaiaz gozatzeko aukera izan genuen.

Arratsaldeko zazpi eta erdietan autobusa hartu eta 23 ordutako bidaia egin genuen Holandaraino. Bertan Amsterdam, Marken eta Volendam ezagutu genituen eta gero Bruselasera joan ginen lehenengo egun osoa Brujas bisitatzen eman ondoren.

Parisen pasatu genituen azken bi egunak. Lehenengo gauean hainbat arazo izan genituen hotelarekin, dena konpondu ondoren hotel berri batera eraman gintuzten. Frantzian Asterix Parkea ezagutzeko aukera izan genuen, eta, nola ez, Paris hiria bisitatu genuen.

Bederatzi egun hauek oso pozik pasatu genituenez, orain dela gutxi bidaia gogoratzeko afari bat egin genuen. Dena den, prest gaude horrelako bidaia bat berriro errepikatzeko!!!

**DBH 4.MAILA**









**Aitor Eraña**
**Bat.2**